20 14

FAISAIEN UHARTEA



Bidasoa ibaiko uharte bat da, nazioarteko muga bezala erabiltzen den ibiaren puntu batean kokatuta. Bertan, oraindik itsasaldien eragina garrantzitsua da.

5.600 m2 azalera dauka (214 m luzera eta 37 m zabalera). Nagusiki ibaiak ekarritako materialek sortzen dute, beraz, harri-lubeten bidez eutsi behar izan zen, egonkortasun arazoak saihesteko.

Hasiera batean Hondarribikoa izan arren (bere jurisdikziopean zegoen) “inoren lurraldean” zegoen eta horrek zenbait gatazka sortu zuen, bereziki ibaiertzetako arrantzaleen artean. Bertan, halaber, akordio garrantzitsuak sinatu ziren, besteak beste, Pirinioetako Bakea, Espainia eta Frantzia arteko gudari 1659. urtean amaiera emanez, Luis XIV.a Frantziako erregearen eta Habsburgoko Maria Teresa Felipe IV. aren alabaren arteko ezkontzarekin. Uhartearen erdialdean kokatutako monumentu batek jazoera haren oroitzapena egiten du.

Uhartearen kudeaketarekin arazorik ez izateko, 1856an sinatutako Baionako Itunaren 27. artikuluak, uharteari dagokionez, hitzartuko du (...L’Ile des Faissans... appartiendra, par indivis, á la France et a l’Espagne...”). Konbentzio batek 1901. urtean itun hau zehaztuko du.

Horrenbestez, jabekidetza bat ezarri zen, batzuen ustez, munduko txikiena izanik. Haren bidez, Hondarribiko eta Adourreko (Baiona) itsas estazioetako komandanteak hain txikia zen lurraldeko kudeaketaz arduratuko ziren, urtean sei hilabetez. Gaur egun, Donostiako eta Bordeleko itsas komandanteak dira “erregeorde” zeregin hau gauzatzeaz arduratzen direnak. Adierazitako botere eskuordetze hori 2012. urtetik aldian-aldian gauzatzen da, uhartean betan antolatzen den zeremonia batean.



Pirinioetako Bakearen monumentua uhartean.



Ortoargazkia 1983. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi. Gipuzkoako Foru Aldundia / Diputación Foral de Gipuzkoa. “A” amerikar hegaldiaren ortoargazkian oso zaila da uhartea ikustea, eta B amerikar hegaldiena eta Gipuzkoako Foru Aldundienetakoan, berriz, ez da agertzen.1983. urtean izango da uhartea nolabaiteko zehaztasunez eta gaur egungo baino begetazio gutxiagorekin agertzen hasten denean.



Hiri ortoargazkia 2007-2009. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi. UTM 30N ETRS89 // X: 600067 m // Y: 4799622 m.

Ikus daiteke uhartean begetazioa nabarmen hazi dela. Itsasbeheran, sarritan, Irun aldetik, uhartea inguratzen duen itsaso besoa lehor geratzen da.